



VILLA LLAGUNO
D MAILA

BEATRIZ INFANTA 14



Egileak: Eduardo Lagarde eta Luis Martinez Ubago; 1928

Deskribapena

Txalet parekatuan (Kristina infanta 11rekin) kokaturiko etxebizitza familiabakarreko eraikina. Erdisotoa, behe oina eta bi goi oin ditu. Gainera, kantoiko dorre gailen bat du (hirugarren oina). Lau isuriko estalkia, fatxada osoaren goialdea hartzen duen eta dorreak bakarrik eteten duen teilatu hegal dekoratuarekin errematatua. Behe oinean eta lehen oinean hormatal entokatuak, eta bigarren oinean zeramikaz estaliak zeihar aparailuan. Inpostez, bao azpadurez, kateatzu eta hareharrizko erdizutabez mugatuak daude. Jatorrizko proiektu komuna Kristina Infanta 11rekin.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak; zeramikazko estaldura.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.